

# BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko, enpresekin eta influencerrekin harremanetan egongo gara. Gehienbat pertsona gazteei bideratuta dagoenez, pertsona gazteetan ikusiak diren influencerrekin harremanetan jarriko ginateke, gazte berriak erakarriz.

Gure kooperatibarentzat oso garrantzitsua da bezeroekin harreman on bat izatea, izan ere, bezerorik gabe ez litzateke enpresarik egongo. Gure kooperatiba aplikazio bat denez, zailagoa da aurrez aurreko harremana sustatzea, horretarako, online bidez sortuko genituzke harremanak.

Ondorioz, aplikazioan zati bat egongo litzateke bezeroak beraien proposamenak jartzeko. Aplikazioan erraza sartzeko den toki batean jarriko genuke, oso garrantzitsua baita haien iritzia. Beraien proposamenekin, aplikazioak eguneratuko genituzke. Horrela ez zen zahartuta geratuko eta bezeroen eskakizunak azaleratuko genituzke, beraiantzat diseinatuta baitago aplikazioa.

